XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA
ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

3444

129/2011 DEKRETUA, ekainaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2011ko ekitaldiko Aurrekontuko 5111 Programan (Egitura eta Laguntza, 06 Saila) diru-sarrerak lortu direla-eta, 5151 Programan (Portu Administrazioa eta Itsas Gaiak) 390.778,67 euroko kredituak gaitzen dituena..

Eguzki Eraikuntzak SL enpresari esleitu zitzaizkion Orioko kaian portu-zerbitzuak emateko hiru eraikin amaitzeko obrak, zeintzuk 5 hilabeteko epean burutu behar baitziren, eta 1.051.435,84 euroko aurrekontua baitzuten, honela banatuta: 472.000 euro 2010. urtean, eta 579.435,84 euro 2011.urtean.

Enpresak egoera ekonomiko larria bizi du, ordea, eta ezin izan die aurre egin obra burutzeko dituen obligazioei. Horregatik, aipatutako espedientean sartuta dauden Administrazio organoei kontsulta egin ondoren, eman diren fakturak erregularizatzea erabaki da. Ondorioz, enpresa esleipendunak dirua itzuli behar du, alegia, Eusko Jaurlaritzaren Diruzaintza Nagusian 390.778,67 euro sartu behar ditu.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Zerbitzu zuzendariaren ebazpen baten bidez, baimena eman da Eguzki Eraikuntzak SLk izenpetutako kontratua Construcciones Amenabar SA lagapen-hartzaileari lagatzeko, eta beraz, azken horrek lagatzailearen eskubide eta betebehar guztiak subrogatu ditu.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak, kreditu erabilgarrian galerarik izan gabe obrarekin jarraitu ahal izateko, Diruzaintza Nagusian sartu diren funtsak 2011ko aurrekontuan gaitzea eskatu du.

Horregatik, kreditu horiek gaitu behar dira, Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruz indarrean dauden lege xedapenen testu bategina onartzen duen irailaren 27ko 1/1994 Legegintzako Dekretuaren 82. eta 83. artikuluetan ezarritakoa betez.

Horiek horrela, Ogasun eta Ekonomiako sailburuak eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuak proposatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011ko ekainaren 21ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2011ko ekitaldirako Aurrekontuan kredituen gaitze bat onartzea, gastuen honako egoera-orri honetan:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
5151	622.81	390.778,67

Diru-sarreren egoera-orri honetan beste hainbesteko diru-sarrerak lortzetik sortzen dira kredituok:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
5111	380.00	390.778,67

Funts horiek erabiliko dira, hain zuzen ere, Orioko kaian hiru eraikin amaitzeko obren kontratazio-espedienteari 2011rako dagokion aurrekontu-kreditua handitzeko.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko ekainaren 21ean.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.